



EMAKUMEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Ale honetan ere...

- ① **IRITZIA:** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia gure zerbitzura
- ① **Elkarrizketa:** Gloria Bonder, Genero eta Gizarte Informazioan aditua
- ① **Emakumeak Sarean,** jarraipena bilatzen duen programa
- ① **Berdintasun politiken** bulkada, nazioarteko adituek aztertua



Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak gure zerbitzura

Historian zehar, emakumeek hainbat motatako harremanak izan dituzte, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin (IKT). Izan dira ikusezin egin dituzten emakumeak, IKTen erabilera ikusgarri egin nahi izan duten emakumeak, eta baita ohiko lanetan eta nahiz bizitza pertsonalean IKTak erabiltzen ditugun emakumeak ere. Baina, badira zenbait arrazoi direla eta, IKTak erabiltzen ez dituzten asko ere. Zertarako balio duten ez jakiteagatik, garestiegiak direla iruditzen zaielako (denbora eta prestakuntza eskatzen dutelako), etengabe berritzen den arlo batean egunean egotea ezinezkoa dela uste dutelako, eta dagoeneko dakitenarekin nahikoa dutela iruditzen zaielako, edo besterik gabe, erabiltzeko gogorik ez dutelako.

Egun, nahiko ohikoa da Internet eta beste aplikazio batzuk erabiltzea hamaika ekintzatarako. Gero eta sarriago ikusi eta erabiltzen ditugu Netbook, tablet eta smartphone moduko gailuak, Interneten sartu eta informatzeko, komunikatzeko, eraginkorrago lan egiteko, edo besterik gabe ongi pasatzeko.

IKTen HISTORIA ETA EMAKUMEAK


XX. mende bukaera arte ez dira emakumeek teknologia-aren garapenean egin dituzten ekarpenak aintzat hartu. Egoera hori azken urteetan aldatu egin da, emakumeak ageriko egiten ari diren hainbat ikasketa, ikerketa eta literatur-lanei esker.

Ada Lovelace (1815-1852), egun informatika-programen ama moduan hartzen denari, bera bizi izan zen garaian, eta hil ondorengo urte asko pasa arte, ez zioten bere lana aitortu. Ikusezintasunaren beste adibide bat dugu ENIAC (Electronic Numerical Integrator and Computer) ordenagailuaren kasua. Izan ere XX. mendeko 40. hamarkadan Estatu Batuetan egin zuten lehenengoetako konputagailua izan baitzen. Asmakuntza horren ingeniariak famatu egin ziren bitartean, inork ez zituen konputagailua programatu zuten sei emakumeak ezagutu. 80. hamarkadan, oraindik ere, argazkietan konpu-



tagailuaren ondoan agertzen ziren sei emakume haiek, modeloak besterik ez zirela esan izan zuten. Kathryn Kleimen ohartu zen, 1986an Harvarden, emakumeek ordenagailugintzan izandako papera aztertzen ari zela, emakume haiek programazioaren oinarria ezarri zutela, eta eredu soil eta sartzeko errazak erabiliz, lehenengo software programak garatu zituztela.

Gaur egun,
oinarrizko ezaguera
batzuekin Interneten
ibiltzeko beharrezko
trebetasunak lortuko
ditugu



Adibide gehiago ere badira, eta IKTen garapenean eragina izan duten emakumeak ezagutu, eta ageriko egin nahi dituen orok, wikipediaren “Mujeres en Informática” (Emakumeak Informatikan) edo Asturiasko Emakumearen Institutuak abiatutako Enredadas2.0 proiektuaren “Una historia invisibilizada”, (ikusezin egindako historia bat) webgunean, aurkituko du ezkutuko informazio hori guztia.

IKTen OHIKO ERABILERA (LANA, KOMUNIKAZIOA, AISIA)

Egun, teknologiaren erabilera duela urte batzuk baino errazagoa da. Lehen, informatika eta programazioari buruzko ezagutzak behar-beharrezkoak baitziren. Erabilgarriak diren tresna eta zerbitzuei esker, egun inoiz baino samurrago egiten zaigu informazioa biltzea, mezuak Internet bidez bidaltzea, gure ahotsa entzunaraztea, interes komunengatik inguruan komunitateak sortzea, edo talde-lanean jardutea. Horretarako, bilatzaileak, weblogak, sare sozialak eta wiki orrialdeak gure esku dauden tresnak dira.

Teknologiarako sarrera eta bere aplikazioen erabilera gero eta errazagoa eta intuitiboagoa bada ere, badago oraindik arazo bat suposatzen duen eten - digital bat, Internet erabiltzeko trebetasuna gero eta beharrezkoagoa delako emaitza akademiko hobekoak lortzeko hala nola lanpostu hobekoak lortzeko.

Emakumearen Institutuak finantzatutako eta Madrilgo Complutense Unibertsitateko Berdintasuneko Behatokiak 2012ko maiatzean aurkeztutako “La brecha digital de género en España: Análisis multinivel (España, Europa, Comunidades Autónomas)” lanean, azken urteetan emakume eta gizonen arteko eten - digitala %26tik %7,2ra jeitsi dela azaltzen da, baina baita emakumezkoen Informazio Gizarterako (IG) heldutasunarekin eragin ezkorra duten zenbait genero - eten digital irauten dutela ere azpimarratzen du, emakumeak Informazio Gizarteran sartu eta baldintza berdinetan parte hartu dezaten eragozten dituenak.

SAREAK ERATU ETA ETENAK MURRIZTEKO MOTIBAZIOA

Oinarrizkoa da motibazioa eta interesa izatea IK Tetara hurbiltzeko eta Interneten ibiltzera eraman gaitzaken motibazioak mugagabeak dira; Informazioa zuzenean sartzeko, komunikatu eta irudiak, bideoak, testuak partekatzea, gure ideiak eta hausnarketak Interneten argitaratzea, beste batzuekin proiektu batean lan egitea, etab.

Gaur egun, gure kabuz lortu ditzakegun ezaguerekin, gure ingurukoiekin galdetuz, KzGuneke edo beste nonbaiteko ikastaro batera joanez, etab... Interneten ibiltzen ikasi dezakegu. Tablet eta smartphonen etorrerarekin Interneten ibiltzeko ezaguerak nahiko

erraztu dira, konektatzeko eman behar diren pausuk murriztuagoak direlako ukipen - ikonoen erabilera dela eta.

IKTei ONURA ATERATZEKO PRESTATU ETA INFORMATU

2010ean, Emakumeak Sarean proiektuaren barne dagoen Berrikuntza Informazio Gizarteraren Euskadi Planan, Emakunde “Emakumeak, berdintasunerako desberdin korapilatzen direnak” topaketa antolatu zuen emakume elkarrekin prestakuntza beharrezkoak ezagutzeko. Eusko Jaurlaritzako KzGunea sarea aprobetxatuz, KZEmakumeak Sarean ikastaro programa egin zen, IKT eta Interneten emakumeen erabilera hobetzera bideratua.

2012ko ekainean, Euskadiko Landa Eremuko *Emakumeen Batzordeak* eta Katiluk, Barnetegi TICs&TECs lehenengo barnetegiak sustatu zuten, SPRIren bitartez Euskadi+Innovak antolatua, eta HAZI eta Innobasqueko Adimen Emozionaleko Partzuergoaren laguntzarekin. IKTen erabilera praktikoa aditzera eman eta bizipenak partekatzeko aukera paregabea izan zen.

IKTak GURE ZERBITZURA

Informazio eta Komunikazio Teknologiak eskaintzen dizkiguten aukerak aprobetxatzeko Internetek ematen dizkigun baliabideak anitzak dira. Bada garaia hor bertan, gure zerbitzura dauden teknologia horiei ahal den etekin handiena ateratzeko.



Genero eta Informazio Gizartean aditua den psikologo argentinar honek ikerkuntza ugari egin du genero, zientzia, teknologia eta heziketa arloetan. Emakundek urriaren 17 eta 19 bitartean Bilbon ospatuko duen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarrean parte hartuko du. “Emakumea, Zientzia eta Teknologia Latinoamerikan” UNESCO Eskualde Katedraren koordinatzailea da eta Nazio Batuen Informazio, Komunikazio eta Garapenaren Teknologietarako Aliantza Globaleko Aholku Batzordeko kidea. Elkarrizketa honetan emakumezkoen erronkak aztertzen ditu ingurune digitaletan, hain zuzen ere, botere-prozesuak eta mekanismoak jokatzaren diren lekuan.

TESTUA: C. RUIZ DE GARIBAY - ARGAZKIA: K. CORBELLA

«IKTetako *prosumidore*, ekoizle, kontsumitzaile erne eta sortzaileetan bihurtu behar gara»

Emakumeak gizonak baino beranduago hasten gara IKTak erabiltzen. Zure iritziz zeintzuk dira eragiten duten faktoreak genero-etenak irauteko jakintza eta boterea kudeatzen den eremu horretan?

Planetako eskualde guztietan teknologia hauen zabalkundeak ondorioak ditu.

Teknologia horiek eragina dute heziketan, merkataritzan, komunikazioan, politikan, osasunari buruzko arretan (ezaguera zientifikorarte) eta gizarte- eta ekonomia-berrikuntzetan. Hala ere, herri guztiek eta gizarte-sektore guztiek ez dituzte

baldintza berak IKTak erabiltzeko. Ezberdintasunak edo, hobe esanda, desberdintasunak argi ikusten dira arreta jartzen dugunean besteak beste, lor daitekeen ekipamendu- eta konektagarritasun-motan, pertsonak dituzten gaitasun teknologiko eta kulturaletan eta hezkuntza-gaitasunetan, modalitateetan (oinarrizkoak edo aurreratuak) eta erabileraren helburuetan, horretan ematen duten denboran eta beren bizitza sozialean, laborean eta herritar kontzientzian duen eraginean.

Egun jada ez da eten digitalaz hitz egiten, eten digitaletan, pluralean, baizik, eta horrek generoko eten di-

gitalei ere eragiten die. IKTen erabileran gizonezko eta emakumezkoen arteko ezberdintasunak murrizten ari dira herrialde gehienetan, hein handi batean teknologia-merkatuen hedapen bizkorren eta ekipamenduen kostu txikien ondorioz, baita heziketa-sektorerara zuzendutako sustapen-politikengatik (konputagailuak dohainik ematea, adibidez), sarbide-komertzialak ugaritzeagatik (Telezentroak eta Internet kafeak) eta, azkenik, belaunaldi berriko mugikorren iraultzagatik ere. Azken horien erabilera bizkor hedatu da.

Mugikorren erabilerari dagokionean, eskuragarri dagoen infor-

mazioak frogatzen du Latinoamerikan eta Karibearen mugikorren erabileraren genero-etena % lekoa dela. Eskualde horretan, 168 milioi emakumek eta 165 milioi gizonak gailu hori daukate. Hiriguneetako 21 eta 27 urte bitarteko ikasleen artean, % 90ak mugikorra du eta % 51k norberaren diru-sarrerekin ordaintzen du. 21 eta 49 urte bitarteko profesionalen artean, hiriguneetan, % 97ak mugikorra du, % 98ak norberaren diru-sarrerekin ordaintzen du, eta gehiago interesatzen zaie telefonia-zerbitzuak eskaintzen duen estaldura bere kostua baino. Bi herenek enplegu-aukerak aurkitzeko erabili zutela diote. Datu horiek azaltzen dute gaurko panorama zehazteko garaian beharrezkoa dela bereizketa egitea bi generoak kontuan izanik, baina baita egoera sozioekonomikoa, bizilekua, heziketa- eta kultura-kapitala, adina eta genero-eskudantziekin eta -itxaropenekin era berezian artikulatzen diren beste baldintzatzaileak ere.

Emakumezkoak eta gizonezkoak berdin hurbiltzen al dira Internetera eta berdin erabiltzen al dute?

Ikerketa askok emakumezkoek eta gizonezkoek Interneten erabilera desberdina egiten dutela frogatu arren (emakumezkoen joera heziketa, osasuna, komunikazioa; gizonezkoena kirola, musika, entretenimendua), analisi zehatzagoek adierazten dute emakumezkoak, eta batez ere gazteenak, estereotipoak apurtzen ari direla eta interesa agertzen dutela "tradizioz" maskulinoak diren lekuak aztertzeko, hala nola jarduera ludikoak, komertzialak, erotikoak, kirolezkoak. Sare sozialetan gailendu egiten dira eta blog-sorreretan aurrera oso bizkor egiten dute. Antzeko fenomenoak ez da ikusten gizonezkoetan; azken horiek beren generoarentzako aurreikusitako interes eta praktika teknologikoekin lotura handiagoa dute eta kontserbadoreagoak dira.

Eta zer gertatzen da IKTeekin lotura duten teknologiak sortzean edo haiekin lotura duten enpresa eta politiken edukietan edo erabaki-mailetan?

Gaurko erronka handia teknologia sortzaileei buruzko irudia aldatzean datza (bereizten dituzten ustezko trebetasunak), historian zehar asmakizun

teknologikoak sortu dituzten emakumeak nabarmendu eta berreskuratu, sektore honetan garatu diren ibilbide profesionalak azaldu, arlo honi lotutako irakasgai eta ikasketen edukierak eta estrategia pedagogikoak berritu, nerd estereotipoa errefusatu eta IKT eta garapen sozial, ekonomiko eta sorkuntza kulturalaren arteko lotura antzematen ez duten emakumeak eta gizonak erakartzeko. Beste era batera esanda, tresnarekin egindako irudikapena deuseztatu, gizonezkoarekin duen erlazioa ere, ingurune soziokultural eta ekonomiko indartsu bezala antzemateko eta, erronka hauek jaso eta argibideak bideratzen dituzten enpresa politikak eta publikoak suspertu eta balioztatzeke.

Egia da, beste alorretan gertatu den bezala, feminismoaren ezinbesteko aldarrikapen nagusia partaidetzarako bide bezala, emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasunaren jadanekotasuna dela. Garrantzitsua da horregatik, emakumeak sektore honetako ikasle eta profesionalen artean, sortzaile eta asmatzaileen artean, eta teknologia enpresa eta politiketan ordezkariak izatea. Politika, zientzia eta ekoizpena bezalako alorretan lortu ditugun ikasketak, irudikeriako berdintasun eta zenbaki – parekotasun batean eroriko ez diren estrategia politikoak sortzearen beharraz ohartarazi behar gaituzte ordea, ingurune digitaletan botere - prozesu eta mekanismoak jokoan daudelako, bai implizituak nola esplizituak, eta gure egunerokotasuna gero eta merkantilizazio sarkorragoa pairatzen duen ingurune honetan ematen delako.

2008an Donostian ospatu zen Emakundeko kongresuan berrikuntzak ez bere ondorioetan, ezta bere moduetan ere, ez kaltegarriak ez direla ohartarazi zenuen.

Gaur egun, berritzea funtsezkoa da eremu ekonomikoan, politikoan eta pertsonalean.

Adiera bakarreko esanahia ez badu ere, berrikuntzari buruzko diskurtsoak poztasunak lortzeko seinale bezala azaltzen du, bere erakargarritasuna egiaztatuz eta konnotazio negatiboak duen iraganaldiaren aurre kontrajarrit. Dirudienez, hondakin kultura bat desioen asebetetzearekin batera bereiz-

ten du etapa hau. Hau, merkatuagatik gogor lehiatzen duen industria batek bultzatua dago, estatus bat markatzen duten berrikuntzen ekoizpen denborak azkartuz, baina baita, iraganari gaitz guztien errua bota eta etorkizun on baten itxaropena ereiten duten diskurtso politiko eta ekonomikoengatik ere. Aurrekoarekin ez da sortze – ahalmena ezta hobe bizitzeko aukeren bilaketa ezetzatua nahi, hauek zuzentzen saiatu behar gara ikasi eta erabili daitezken jakintzak ez irainduz.

Nola erabili ditzazkete emakumeek teknologia berriak gizarte patriarkal menderatzailea aldatzeko?

IKTak emakumeen hazkunde pertsonal eta kolektiborako baliabide botereetsuak bihurtzeko gaitasuna dute, eta horrekin, bere gizartearen garapenerako ekarpenak balioztatzeke ahalmena. Baina teknologiek bere kabuz ez dute aldaketa egiten zentzu transformatzaile eta emantzipatzaile batean; eskuratu behar diren baliabideak dira, eta honekin, zentzua, norabidetasuna eta balioa eman behar zaiela esan nahi dugu, bere gaitasunak eta mugak nabaritzen eta bere arriskuak kontutan hartuz.

Azken finean, "prosumidore" (ekoizleak eta kontsumitzaileak) adi, analitikoak eta sortzaileak bihurtzea, leku hauetan bere eskubideak errespetatuak izan behar direla jakitun eta ahalduz pertsonal eta kolektibo estrategiak dinamizatzeke.

Hau herri askotako ekimenetan eritzen ari da, gaitasun hauek dituzten zenbait emakumeek ekimen produktiboak sortu eta garatzen ari dira, ikasten dute, osasun gaiak eta ekonomikoak hobe kudeatzen dituzte, eztabaidatan parte hartzen dute, kanpainak antolatzen dituzte, elkartasunak finkatu, bere ideiak eta sorkuntza artistikoak zabaltzen dituzte, baita sareak sortu ere. Alderdi sozial, talde etniko eta adin ezberdineko emakumeak hartu behar dituen bide bat da eta honek, ordenagailu bat edota Internet erabili baino gehiago suposatzen duten ekintzak aurrera eramatea da.

Topaketa hauek sortzen duten berrotasuna, poza eta harridura mantentzean datza erronka, eta honekin batera, kontaktuen azkartasuna eta hauen itxurazko muga falta, "koloretako ispi-luetan" sinestarazi egiten gaituena.



EMAKUMEAK SAREAN

Jarraipena bilatzen duen programa

Berrikuntza eta Informazioaren Gizarte Zuzendaritzak, Emakundek, eta KzGuneen zentru-sareak, Emakumeak Sarean deitu duten proiektuaren baitan, formazio digitalaren ikastaroak antolatu dituzte, 23 elkartetako mila emakumeren onerako. Ikastaro horiek etorkizun hurbilean ere jarraitu ahal izango dute. Parte hartu duten emakumeen %90,45 urtetik gorakoak ziren. Erreportaje honetan esperientzia praktikoa batzuen berri ematen dugu, eta emakume hauek teknologia berrietara nola hurbildu diren kontatzen. TESTUA: C. RUIZ DE GARIBAY

Bilbon, 2010eko martxoan, Emakumeen Elkarteetara gerturatzeko jardunaldia antolatu zen, zeinetan 80 emakumek parte hartu baitzuten. Jardunaldian ikusi zen beharrezkoa zela elkarte horietarako berariazko programa hezigarria diseinatzea, KZgunea zentroen sarean garatuko litzatekeena. 1.250 formazio-ordu eman zituzten 2010eko urritik 2011ko ekainera, lau tailerren inguruan: Teknologiaren bidearen hastapenak, teknologiaren erabileran aurrerapenak txertatzen, Elkartearen Komunikazio Planaren zehaztapenak eta aholkularitza saioak.

Ikasle guztiek ez diote etekin bera atera ikastaro honi, ez pertsonalki ezta beren elkarteari begira ere. Batzuk ordenagailurik edo Internet-linearik ez izategatik, beste batzuk, aldiz, denbora faltagatik. Hala ere, esperientzia positiboa izan dela esatean bat dator gehiengoa,

eta esperientzia hori errepikatzeko prest egongo litzateke.

Lourdes Ochoa Arandia “Dandaiko”, batez ere Donostiako Egia auzoko 130 emakume baino gehiago biltzen dituen elkarteko, lehendakaria da. Berak dio emakumeen hiru laurdenak ez zekiela zer zen ordenagailu bat. “Bazeuden lauzpabost emakume maila jakin bat zutenak, eta horiek kurtsoan aurrera egin ahala sartzen joan ziren pixkanaka. Emakume horiek gehiago ikasteko gogoz geratu ziren, eta gainerakook hainbat gauza sendotzeko beharra izango genuke. Geure baldartasunarengatik, hasieran motelak izan ginen eta programa-bukaera oso azkar ikusi genuen.” Aukera hori eman zietela adierazten du eta jakin-mina sortu zitzaizela. Doinu barregarrian hauxe gaineratzen du: “Geure familietan nolabaiteko estatusa lortu dugu, egunean gaudela eta gaurkotasuna interesatzen

zaigula ikusten dutelako.” Orain Dandaieko bazkideek mezu elektronikoak bidaltzen dizkiote elkarri, eta harremana bizkorragoa da. “Internet-erabiltzaileen arteko konplizitate handitu egin da, betiere besteak baztertu gabe, eta gaur egun emakume aurreratuenak dira blog-a eguneratzen ari direnak.

Celia González Nuñez arabarrak uste du “ezinbestekoa” dela gisa horretako ikastaroen bidez eguneratzea, egun, dena informatizatua dagoelako. Celiak 69 urterekin egin zuen ikastaroa, Alegria-Dulantziko Etxekoandreen Kultur Elkarteko beste dozena bat emakumerekin batera. Bat ere konplexurik gabe, goizez antolatu zituzten hamabi saioetan parte hartu zuten. “Gure egoitzan ordenagailu bakarra daukagunez, saioak Udal Liburutegian egin genituen. Hasiera-hasieratik erakutsi ziguten dena: ordenagailua nola piztu, interneten nola kontsulta



WWW.FLICKR.COM/PHOTOS/STPESI2010

egin, mezuak nola bidali.” Batzuk ikasitakoa zabaldu ahal izan dute EPAko ikastaroen bidez, eta beste batzuk ezin izan dute ikasitakoa praktikatu, etxean ordenagailurik ez izateagatik. Horregatik, emakume bazkideen artean oraindik telefono bidez komunikatzen dira. Celiak otsailetik etxean du Interneterako konexioa. Arazorik gabe ibiltzen da interneten, eta zalantzak dituenean seme-alabei eskatzen die laguntza. “Ez baduzu erabiltzen ahaztu egiten zaizu, eta nik informatuta egon nahi dut. Baratzaren ingurukoak kontsultatzen ditut: gaixotasunak, landareak eta horrelakoak.”

Maite Olaondok, Hondarribiako Emeki Elkartekoak, gogoratzen du ikastaroa "oso trinkoa eta denbora gutxian kontzentratutakoa" izan zela. Hark bazuen oinarritzko ezagutza, 2 urtetan EPA-n ibili zelako, baina beste emakume batzuek –guztira 35 izan ziren– zero mailatik abiatu ziren. "Internet oso erreminta interesgarria da, berari esker komunika gaitezke eta behar dugun edozein gai kontsulta dezakegu. Ni motel noa, eta gustatuko litzaidake enpresa batek guretzako egindako webean hobeto moldatu ahal izatea, edo ikastaroan sortu genuen blog-a hobeto erabiltzen jakitea".

Sestaoko Neba- Nebako egoitzan ez dago Internetik. Lokala Udalarena da eta honekin itxitako hitzarmenean ez da gastu hori sartzen, elkarte hau tratatu txarrak jaso dituzten edo banandu diren emakumeei aholkularitza psikologikoa ematen badie ere. Hala ere, Mari Carmen Garcia Urue

eta beste 13 bazkideek, ikastaro hau egin zuten. Bere webgunea sortzeko konpondu ziren eta orain, e-mailak telefonozko deiekin txandakatzen dituzte deialdiak eta premiazko abisuak bidaltzeko. “Gogoekin geratu ginen eta webgunea eguneratzeko ezaguerak zabaldu nahiko genituzke”.

Ana Maria Arrieta Maia, “erretiratu estresatua” bezala definitzen dena, ongi aprobetxatu zuen ikastaroa. Bera eta Gipuzkoako Emakume Bananduen Elkarteko beste bi kide, aurretik ezaguerak zituztenak, webgunea bi hizkuntzatan eguneratu zuten, blog bat sortu eta facebook-en sartu ziren. "Pertsonalki oso erabilgarria izan zait", dio Ana Mariak, oinarritzko ikasketak egin zituena eta “Michelinen gurpilak egiten” zituen langilea. IKTetan eskarmentua duen abokatu batek darama lan administrazioa. “Bazkideen artean posta elektronikoa erabiltzen dugu egunero, baina baita telefonoa Internet ez dutenekin harremanetan jartzeko”.

Bilboko Etxeko - Andre Elkarteko presidenteordea den Montse Barquin Canales-en teknologia berriengatik interesa beharregatik sortu zen. Bere aitak hemengoa utzi ondoren Mexikon sortu zuen “beste familia” aurkitu nahi zuen. Olentzerok ordenagailu bat utzi zion, ikastaro batean sartu zen eta orain, besteak beste, berak erantzuten ditu elkartera iristen diren mailak. “Ikastaroan ez ginen niri benetan interesatzen zitzaidan bideokonferentzien gaira iritsi”, atsekabetzen da Montse, bere 68 urterekin, ez dena “ez azkarrena, ez traketsena” kontsideratzen. Bilboko Alde Zaharreko

egoitzan eta Udal Liburutegian antolatzen diren hitzaldietaz eta beste jarduera ezberdinetaz berri emateko bere kabuz kartelak diseinatzen ikasi du. Iaz, elkartearen 40.urteurrena ospatu zuten.

“EMAKUMEAK SAREAN” PROGRAMAN PARTE HARTU ZUTEN EMAKUMEEN ELKARTEAK

- AMPEA
- Anderebide
- Itzatu Emakume Taldea
- Dulantzi Etxeko Andreen Elkartea
- Haize Elgoibarko Emakume Taldea
- Lagunak Emakume Taldea
- Gipuzkoako Emakume Bananduen Elkartea
- Uztai Belar Elkartea
- Barrikako Emakumeen Hitz Elkartea
- Bizilore
- Dandai
- Ekintza Dasalud
- Emeki
- Getxoko Emakume Hiritarrak
- Etxeko-Andre
- Hiriska
- Kimetz Emakumeen Elkartea
- Madalenako alargunak
- Neba-Neba
- Santurtziko Toki Plana
- Sim Romi
- Zabieli
- Eskulan Taldea



BERDINTASUN-POLITIKEN BULKADA, NAZIOARTEKO ADITUEK AZTERTUTA

400 pertsona inguru elkartuko da Bilboko Euskalduna Jauregian, urriaren 17a eta 19a bitartean, Emakunde antolatutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarrean. Hiru egun horietan, hainbat herrialdeko adituek krisi-testuinguruetako estrategiak aztertuko dituzte eta berdintasunerako politika publikoek azken urteetan lortutako aurrerapenen gainean hausnartuko dute.

Inaugurazio-konferentzia Emakundeko zuzendaria den María Silvestrek aurkeztuko du eta Virginia Maqueirak, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Antropologia Sozialeko irakaslea, emango du. Azken honek nazioarteko ikuspuntutik eskainiko du ikuspegia.

Ondoren, eztabaidatuko dira "Emakumeen eta gizonen berdintasunerako mundu globaleko erronkak". Txostengileak hauek izango dira: Amaia Pérez Orozco, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko ekonomiako doktorea; Gloria Bonder, psikologo argentinarra eta FLACSOko Genero-, Gizarte- eta Politika-saileko zuzendaria eta Wassyla Tamzali, abokatu aljeriarra. Pilar Pérez-Fuentesek, Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHUko) Historia Garaikideko irakasle titularra denak, moderatuko du eztabaida

"Arazo globaletarako begirada desberdinak: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako proposamenak" horixe izango da hurrengo eztabaidarako titulua. Bertan parte hartuko dute ondoko emakumeek: Christine Epoluke, Afrikako Emakume Ministro eta Parlamentarien Sareko (RDC-etako) lehen presidenteordea, eta gatazken negoziazio eta kudeaketan aditua; Kate Lappin, Asia-Pazifikoko Emakumeen, Legearen eta Garapenaren (APWLD-aren) gaineko Foroko eskualdeko koordinatzailea, eta Lorena Peña, El Salvadorreko Legebiltzarreko diputatua. Teresa del Valle-k, UPV/EHU-ko antropologo eta irakasle emerituak, moderatuko du.

Bigarren eguneko lan-planteamendua komunikazioaren eta lau talde hauen inguruan garatuko da: Gobernantza, Boteretzeta eta baloreen aldaketa, Antolaketa Sozial Erantzunkidea eta Emakumeen aurkako Indarkeria.

Hauetako lehenengoa, Emakundeko Programen eta Prestakuntza Arloko arduraduna den Raquel Raposok koordinatuko du eta Boteretzeta eta baloreen aldaketari buruzkoa, Carmen Díez Mintegui antropologoak koordinatuko du. Antolaketa Sozial erantzunkideko panela, Deustuko Unibertsitateagatik Soziologian lizentziatua eta Gizarte Langintzan diplomatua den Rakek Royok zuzenduko du. Laugarrena, emakumeen aurkako Indarkeriari buruzkoa, Mariola Serranok koordinatuko du, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoa Sailako Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako burua.

Arratsaldean, jardunaldi horretan bertan, Europako berdintasun politikak eta esku – hartze estrategiak aztertuko dira eta bertan parte



hartuko dute: Trentoko (Italia) Unibertsitateko Ekonomia irakaslea den Paola Villa; María Bustelo, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Politika Publikoen irakaslea eta genero berdintasunerako politiken ebaluazioan aditua; Rosa Escapa, Emakumeen Europako Lobbyrako Espainiako Koordinatzailearen (CELEM, gaztelaraz) presidentea eta, José Ángel Lozoya, Gizonak Berdintasunagatik Foroko kidea. Moderatzaile lanetan, Reina Ruiz Berdintasun Teknikaria arituko da.

Mugimendu feminista eta emakumeen erakundeak krisialdiaren aurre nola jokatzeko duten bezalako gaiak buruz izango dira hirugarren jardunaldiko gaiak. Política Feministako Forum-eko idazkaria eta Madrilgo Komunitateko Emakumearen Kontseiluko presidentea ohia, Begoña San Josék, bere ikuspuntuak azalduko ditu jardunaldi honetan, eta berarekin batera, bigarren hezkuntzako Etika eta Filosofia irakaslea den Teresa Maldonado, Feminismos Sol 15M Madrid batzordeko kidea den Sua Fenoll psikologo eta familia terapeuta, eta Tunisiako Emakumeen Nazioarteko Martxako kidea den Shams Abdi, izango dira. Moderatzailea Begoña Gorospe, María de Maeztu Forum Feministako kidea izango da.

Amaiera hitzaldia, Emakundeko idazkari orokorra den Arantxa Elizondok aurkeztutako Marcela Lagarde antropologo eta etnologoak emango du.

Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: www.emakunde.euskadi.net/revista

- Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak.
- Jarduera interesgarrien agenda.
- Beste emakumeekin konektatzeko atala.
- Iritzia emateko lekua.

Edizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimaketa: EPS. Lege Gordailua: VI 465-2010